

DIRU-ITURRIAK

Diru-sarrerak proiektu baten biziraupenerako ezinbestekoak dira. “Aires del Sur” kasuan, gure ekitaldiak eta esperientzia integrala eskaintzeko, hainbat diru-sarrera iturri identifikatu ditugu, eta horiek funtsezkoak dira hasierako inbertsioak estaltzeko eta proiektuaren etorkizuneko hazkuntza bermatzeko.

Diru-sarrera nagusiak

1. Sarreraren salmenta eta ekitaldi publikoak

- Ekitaldi tematiko handiak (Sevillanas, flamenco, rumba, pop espainiarreko kontzertuak) eta gastronomia-musika esperientziak direla eta, sarrera ordainduen salmentak izango dira diru-sarrera nagusiak.
- Prezioak ordainketa bakarrekoak izango dira, hau da, ekitaldi bakoitza behin bakarrik ordainduko da. Prezioa altuagoa izango da, ez delako jarduera soil bat, baizik eta esperientzia oso bat eskaintzen delako.
- Sarrerak aurrez erreserbatu ahal izango dira webgune bidez, eta horrek ekitaldiaren antolaketa eta tokiko edukiera kudeatzeko erraztasuna ematen du.

2. Workshop-ak eta tailerrak

- Dantza (sevillanas, palmak) eta musika tailerrak eskaintzea, non parte-hartzaileek esperientzia praktikoak biziko dituzten.
- Tailer hauen ordainketa, parte-hartze kopuruaren arabera, diru-sarrera gehigarria sortzen du.
- Tailer pertsonalizatuak ere eskaintzen dira, adibidez enpresa edo ikastetxeentzako ekitaldietan.

3. Ekitaldi korporatiboak eta pertsonalizatuak

- Enpresa japoniarrentzako show-ak, embaxadentzako ekitaldi tematikoak eta ospakizun bereziak.
- Ekitaldi hauek ordainketa altuagoa dute, luxuzko esperientzia eta pertsonalizatua eskaintzen dutelako.
- Diru-sarrera hauen bidez, proiektuak balio handiko kontratuak eta itun luzeak lortzen ditu.

4. Merchandising eta produktu osagarriak

- Ekitaldietan erabiltzen diren produktuak, adibidez: abanikoak, kamisetak, loreak, kapelak eta pulserak.
- Merchandisinga hauen salmentak diru-sarrera osagarriak sortzen ditu eta markaren ikusgarritasuna handitzen laguntzen du.

5. Gastronomia eta catering zerbitzuak

- Ekitaldietan gastronomia tematikoaren (paella, tapas, sangría, rebujito) salmentak.
- Horrela, diru-sarrera osagarriak lortzen dira, eta esperientzia sentsoriala osatzen da.
- Ekitaldi pertsonalizatuetan, catering zerbitzuak bezeroaren eskakizunen arabera finkatzen dira, eta hori prezio bereziarekin lotzen da.

Ordainketa motak

- Ordainketa bakarrekoak: sarrera publikoak, workshop-ak eta merchandising produktuak.
- Ordainketa errepikariak: bezero korporatiboentzat antolatzen diren ekitaldi pertsonalizatuetan, harpidetza edo kontratu jarraituak eskain daitezke, adibidez urteko jaialdi tematikoetan parte hartzeko aukera.

Diru-sarrera estrategikoak

Diru-sarrera bakoitzak bere eginkizuna du proiektuaren finantza-egonkortasunean:

- Ekitaldi publikoen sarrerek oinarria eta aurrezki hasierako inbertsioa bermatzen dute.
- Ekitaldi korporatibo eta pertsonalizatuen kontratuek diru-sarrera egonkorra eta etorkizuneko hazkuntza bermatzen dute.
- Merchandising eta gastronomia eskaintzek diru-sarrera osagarriak sortzen dituzte, eta aldi berean markaren identitatea indartzen dute.

Diru-sarrera eta prezio estrategia

- Prezio finkoak: ekitaldi publikoetan eta merchandising produktuen salmentan erabiliko dira.
- Prezio dinamikoak: ekitaldi korporatiboetan eta tailer pertsonalizatuetan, bezeroaren eskaeraren arabera, prezioa egokitu ahal izango da.